

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA EREMUEN GARAPENA IRIZPIDE ANITZEKO EBALUAZIOAREN BIDEZ. MUTRIKUKO LANDA EREMURA APLIKATUTAKO ANALISIA

Tesiaren egilea: Itziar Barinaga-Rementeria Zabaleta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ekonomia Aplikatua I

Tesi-zuzendaria: Mikel Zurbano Irizar

Tesiaren laburpena:

Landa-eremuek azken hamarkadetan aldaketa sakonak bizi izan dituzte. Nekazaritza-sektorearen eraldaketak eta eredu tradizionalaren gainbeherak eragina izan dute paisaian, landa-eremuetako bioaniztasunean, mendeetan zehar garatutako landa-inguruetako kulturaren eta beste hainbat arlotan. Tesi honen helburu nagusia da landa-garapenaren plangintza iraunkorren oinarritzko ezaugarriak definitzea, eta horietara egokitutako ebaluazio-metodologia bat proposatzea. Horretarako, lehenengo, landa-garapenaren eredu iraunkorren ezaugarri nagusiak aztertu dira, eta horietara egokitutako ebaluazio-metodoen oinarritzko baldintzak zehaztu.

Landu den hipotesi nagusia da Irizpide Anitzeko Ebaluazio Soziala (IAES) landa-garapenaren plangintza iraunkorrek definitu eta ebaluatzeko beharrezko diren ezaugarrietara egokitzen den metodo bat dela. Hipotesi nagusi hori bi azpi-hipotesitan oinarritzen da. Lehenengoa da landa-garapenaren eredu iraunkorrek landa-eremuen eta nekazaritzaren funtzio-aniztasunean oinarritutako ereduak direla. Hortaz, landa-garapenaren plangintza iraunkorrek ebaluatzeko, dimentsio eta balio anitz jasotzeko gai diren metodoak landu behar dira. Bestetik, landa-garapenaren eredu iraunkorrek lortzeko, tokiko gobernantza-egitura parte-hartzaileak dira egokiak, eta, hortaz, landa-garapenaren plangintzei buruzko erabakiak tokiko eragile sozialekin elkarlanean landu behar dira.

IAES Irizpide Anitzeko metodoen familiakoa da, eta haren ezaugarrietako bat da irizpide eta alternatibei buruzko erabakiak tokiko eragileekin elkarlanean hartzen direla. Arazo sozioekonomiko konplexuetarako diseinatutako ebaluazio-metodo bat da, iraunkortasunak eskatzen dituen askotariko balio eta dimentsioetako aspektuak lantzeko gai dena eta tokiko eragileen ikuspegi anitzak jasotzen dituena. Iraunkortasunarekin erlazionatutako hainbat esparrutan aplikatu izan da, baina landa-eremu bateko garapenaren plangintza integralak definitu eta baloratzeko erabiltzen den lehen aldia da. Lan honetan, Mutrikuko (Gipuzkoa) landa-lurretan aplikatu da, bertarako landa-garapen ereduak definitu eta ebaluatuz.

Tesiaren helburuak lortzeko, iraunkortasuna eta garapen iraunkorra landu dira, baita Europan eragin nabarmena izan duen Nekazaritza Politika Bateratua ere. Era berean, funtzio-aniztasunak landa-garapen iraunkorrerako eskaintzen duen markoa aztertu da, baita landa-garapenaren eredu iraunkorren lorpenerako gobernantza-egitura egokien garrantzia ere. Lan enpirikoa jasotzen duen atalean, metodologia azaldu ondoren, Mutrikuko landa-eremuan aplikatu da, bertarako garapen-alternatibak definitu eta baloratuz.

Lanaren ondorio nagusien artean, abiapuntu ziren hipotesi nagusia eta azpi-hipotesiak neurri batean egiantzekoak direla frogatu da, hau da, IAES landa-garapenaren plangintza iraunkorrak definitu eta ebaluatzeko beharrezko diren ezaugarrietara egokitzen den metodo bat dela eta landa-garapenaren plangintzak iraunkortasunetik definitu eta ebaluatzeko nekazaritza- eta landa-eremuen funtzio-aniztasunean oinarritutako metodo parte-hartzaileak direla egokiak.